



Balioa izango duen diskurso bakarra hizlariak bertan eskainiko duena izango da.  
El único discurso válido será el pronunciado por el orador o la oradora en el acto.

**IMANOL PRADALES  
Azkoitia, 2024ko apirilaren 6a**

Alderdiakideok, alderdizaleok, lagunok, egun on!  
Eskerrik asko honaino hurbiltzeagatik eta zuen babesak eskaintzeagatik! Kanpainan bete-betean  
sartuta gaude... Aste horretan eman diogu hasiera. Gogo eta indar handiekin gaude.

Kanpaina hasi genuen egunean bertan esan nuen: Eusko Alderdi Jeltzalearen belaunaldi berri bat Euskadirekin eta euskal gizartearekin beste behin ere konprometitzen gara! Hori baita hartzen duguna. Herri honekiko konpromisoa... Egia esan beti bizi izan dugu konpromiso hori. Era batera edo bestera Euskadi hazten laguntzen saiatu gara beti. Han eta hemen. Bada datu bat balioan jarri nahi dudana. Zuekin konpartitu nahi dudana:

Gure hautagaitza-zerrenda da denen artean gazteena! Indar berriarekin datorren belaunaldi berri hau hauteskunde hauetara aurkeztu den gazteena da! Ilusioak gidatzen ditu gure pausuak! Ilusio izugarriak! Gure etxea, euskal etxea, zuekin batera eraikitzen jarraitu nahi dugu! Indar berriarekin! Talde berri batekin!

Plazerra da Azkoitian egotea... Herri honek zenbat eman dion gure Aberriari... Hemen jaio zen Xabier Munibe, Euskal Herriko Adiskideen Elkartea bultzataile nagusia... Elkartea honen estatutuen 1. artikuluan jasotzen da helburu nagusia. Honela dio: "Euskal Herriak Zientziekiko, Arte eta Letra Ederrekiko duen joera eta zaletasuna lantzea, ohiturak zuzendu eta fintzea eta euskaldunen arteko batasuna gehiago sustatzea". Zalantzarak gabe, helburu horiek gure herria hazten, garatzen eta etorkizunari begira jarri zuten... Duela hiru mende jada... Eta oraingoz ere... bizirik jarraitzen dute! Inoiz baino biziago!

Zientzia, kultura, hizkuntza, teknologia, berrikuntza, lankidetza... hor aurkitzen ditugu gure izaeraren sustrai nagusietako batzuk. Baino bada gehiago... Azkoitian ere Balentín de Olano foruzalea jaio zen. Eta herri honek ere ikusi zuen nola sortu zen Emakume Abertzale Batzako kide Julene Urzelai. Ezaguna da gure Aberriaren historian emakumeek izandako funtsezko ekarprena. Gaur gara, beraiek izan zirelako. Eta izango dira gure inguruko emakumeak ere badirelako. Julene, eta Emakume Abertzale Batzako emakumeak, gure Historia dira. Gure parte dira. Gure herriaren oinarri eta zutabe sendoak dira. Hemendik metro gutxira bere ekarprena betiko gogoratuko duen estatua aurkitzen dugu. Eta harrotasunez betetzen gaitu. Julenek eta bere belanauldiak iraultza feministaren hazia erein zuten eta orain, guri dagokigu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra eta erreala gure gizarteko eremu guztieta bermatzea.

Noski, Azkoitia ere gure alderdiaren historiako erreferente ahaltezin baten sorterria ere bada: Xabier Arzalluz handiarena. Berak esan zuen esaldi labur bezain zehatz hau. Gure herria ezin hobeto definitzen duena: "Euskara eta Teknologia". Bi hitzetan nekez esan daiteke gehiago... Baita Roman Suduperena ere. Nola ez! Kultura eta garapena. Ondarea eta abangoardia.

Tradizioa eta berrikuntza. Euskal Herriko Adiskideen Elkartea duela hirurehun urte ezarri zituen helburu berak! Bere historia ezagutzen ez duen herriak ez du sekula aurrera egingo! Eta guk gure historia ezagutzen, zaintzen eta transmititzen dugu! Harro gaudelako euskaldun izateaz! Harro gaudelako gure hizkuntza eta kulturaz! Harro gaudelako gure iraganaz eta, batez ere, gure etorkizunaz!

Estamos, estoy con ganas e ilusión. Con ganas e ilusión de explicarle a la gente nuestro programa para el futuro de Euskadi. Lo presentamos el pasado miércoles en Gasteiz. 10 grandes compromisos de País y 575 medidas concretas. Medidas para llevar a nuestro País a un futuro mejor. El próximo 21 de abril tenemos que elegir quién gobernará Euskadi. Tenemos que elegir si queremos o no crecer en bienestar. Ayer estuve en Ibarria, ya sabéis, una empresa industrial de máquina herramienta de Azkoitia. El corazón de la industria vasca. Y allí se respiraba ese trabajo diario de hormiga, de mujeres y hombres trabajando, media de edad 40 años, innovando cada día para hacer la máquina más innovadora, con la mejor tecnología, para vender en Suiza, en Australia, en Alemania, en Holanda, en Japón, en China..

Hambre por ir a mejor y orgullo de jugar en la Champions de la máquina herramienta en el mundo con marca Eusko Label. Esas empresas, esas personas, son las que hacen que Euskadi tenga hoy calidad de vida, y que tengamos bienestar. Cuando a las vascas y a los vascos nos preguntan en las encuestas que puntuemos nuestra calidad de vida respondemos que un 7,5 sobre 10. Hoy en Euskadi vivimos bien. Esto no es fruto de la casualidad. Es fruto del trabajo y el esfuerzo de miles de mujeres y hombres que, como los currelas de Ibarria, sacan este País adelante como hormigas todos los días. También de quienes antes que nosotros han sudado la camiseta por Euskadi durante años. Y es fruto del trabajo del Partido Nacionalista Vasco, comprometido con construir una Euskadi de bienestar, abierta y plural!!

El 21 de abril nos jugamos nuestro futuro. Euskadi puede y debe crecer en bienestar. Y lo vamos a hacer mediante una triple agenda. La primera: la nueva agenda del bienestar, para dar respuesta a las demandas sociales que tiene la sociedad vasca. La nueva economía y la industria de futuro, el empleo de calidad, la vivienda, nuestro sistema de salud, la seguridad, la educación, los cuidados, el reto demográfico o las transformaciones energéticas... De acertar o no con estas políticas dependerá seguir viviendo bien o perder calidad de vida. La segunda: la nueva agenda global que nos permita crecer como país en el contexto internacional, para ser protagonistas y tener voz propia en las mesas de Europa donde se toman decisiones que nos afectan. Tenemos que estar en esas cocinas y en esas mesas con Eusko Label, porque si no acabaremos tragándonos lo que otros muy lejos de Euskadi y sin contar con nosotros van a decidir que comamos. Y la tercera, una nueva agenda humanista que nos dé herramientas para luchar contra las nuevas injusticias y desigualdades sociales que están surgiendo.

Yo le propongo a Euskadi crecer en bienestar y como País. Y yo también voy a sudar la camiseta, con el mejor equipo, para mejorar la vida de la gente. Para estar bien, para vivir bien y para sentirnos bien. Euskadi va a tener un futuro mejor para todas y todos. Sin falsas promesas. Sin descalificar a nadie. Arrimando el hombro. Y hacerlo entre todas y todos, paso a paso y sin imposiciones ni exclusiones.

Kontrajarriak diren bi ereduren artean aukeratu beharko dugu beraz. Eta zuek, tamalez, ondo ezagutzen duzue beste eredu hori zein den... Inprobisazioa, azken orduko neurriak eta... batez ere... eredu baten inposizioa...2011an ezagutu zenuten hemen eta Gipuzkoako hainbat herritan. Badakizue zertaz ari naizen...Entzun al zuten orduan herritarrek nahi zutena? Ez! Ez zuten jaramonik egin! Gobernura heldu eta ezarri, beraiek..., antza, inork baino hobeto dakitelako zer den behar duguna. Zer den ona eta zer den txarra. Eta ados ez bazaude? Hor konpon... Ez dezagun hori berriz ere gertatzea utzi... Guk dugu horren gaineko erabakia. Herritarrei azaldu



behar diegu apirilaren 21ean aurrera egiten jarraitza dagoela jokoan. Ongizatean eta bizitza kalitatean aurrera egin edo noraezean galdu. Euskadirentzat konponbide eta neurri zehatzak direnak aukeratu, edo edukirik eta errealsismorik gabeko agenda batekin arriskatu. Esperientzia eta kudeaketa ona edo okurrentziak eta ziurgabetasuna. Askatasuna edo kontrola. Etorkizun hobia edo etorkizun okerragoa Euskadirentzat. Asko dago jokoan! Zeini btoa eman zalantzan dauden horiei galdera bat egin nahi diet gaur: Nork bermatu dezake gure seme-alaben eta gure biloben etorkizun onena? Etorkizuna ez dago bermatua. Egunero eraikitzen da. Inkormismotik. Neurri eta erabaki zehatzekin. Eta lanean, buru-belarri lanean!

Soy optimista. Creo que la sociedad vasca va a valorar nuestra propuesta... Una propuesta que tiene como objetivo buscar nuevas oportunidades. Nuevas oportunidades ligadas, por ejemplo, a la nueva economía. Una nueva economía que nos ofrece oportunidades de crear nuevas industrias y empleos de calidad. Nuevas oportunidades ligadas a la digitalización, la inteligencia artificial, la tecnología cuántica o la economía del dato. Nuevas oportunidades ligadas a los cuidados de las personas mayores. Unos cuidados liderados desde lo público pero que trabajando junto con el tercer sector social.

Aukera berriak, baita ere Hezkuntza sistema sendo bat eraikitzeo. Kalitatezkoa eta punta-puntakoa, inklusiboa, berdinalea, eleanitzta eta euskara ardatz izango duena. Aukera berriak gure kultura indartzen jarraitzeo. Denontzat izango den kultura sortuz eta eskainiz. Nola? Kulturaren lege bat garatuz, Kulturgileei eta sortzaileei lagunduz, fiskalitatearen bitartez, beka eta laguntza sistema sendoen bitartez. Eta gure kulturaren munduratzea bultzatuz, Oteizak edota Chillidak egindako bide beretik! Euskal kultura ondarea zainduz eta transmitituz.

Eta noski, denona eta propioa den hizkuntza, euskara, sendotzen jarraituko dugu eta euskaratik gizartea eta gure herriak kohesionatuko ditugu. Euskara eremu gehiagotara zabaldu behar dugu! Esparru digitalera, teknologietara, pantailetara eraman behar dugu, haur eta gazteen aisia euskaraz izan dadin. Lan eta enpresa mundura, euskaraz lan egin ahal izan dezagun! Neurri zehatzak proposatzen dizkiogu euskal gizarteari gure kultura eta gure hizkuntza indartzen jarraitzeo. Zer da ba kulturrik eta hizkuntzarik gabeko Herri bat? Kultura eta hizkuntza gure nortasunaren ikur eta elementu nagusiak dira.

Eta guk euskal nortasuna sendotu eta munduan zabalduko dugu! Gure sustraiak zainduko ditugu, erro sendoak dituen Herria indartsu hazten delako hemen eta mundu zabalean! Nortasun propioak bereizten gaitu Europan eta munduan. Txikiaren eta ezezagunaren edertasuna mundo erraldoi batean aprobetxatu behar dugu gure lehiakortasunerako. Euskal nortasunak abantaila ematen digu beste askorekiko. Ez diogu bildurrik mundu globalizatuari, ongi errotutako Herria garelako. Gure nortasuna zaindu, indartu eta transmitituko dugu. Belaunaldi belaunaldi, orain arte bezala. Euskadi Globala da kultura, hizkuntza eta nortasun sendoko Herria. Berezia eta bakarra. Munduko beste herri, kultura eta hizkuntzen parera eramango dugu Euskadi! Europako txoko honetan Herri indartsu bat dagoelako. Sustrai sakon eta sendoak dituena. Eta Herri hau Euskadi da, mundura irekitako Herria. Nortasun eta izaera propioarekin. Euskadi Globala!

Belaunaldi berria gara bai, baina lekukoa hartzeko prest gaude! Eredua definituta dugu. Iparra non dagoen argi dugu. Eta batez ere... konpromisoa eta talderik hoherena dugu! Zuen laguntza behar dugu... Gure mezua hedatzen lagundi behar diguzue! Bi aste eskaz ditugu aurretik. Lana egiteko, zalantzan daudenekin egoteko, jendea esnatzeko!! Lagunartean, familiaran, ikastolan,

parkean... nahi duzuen tokian! Mobilizazio behar dugu! Euskadik aurrera egin behar du! Eta  
EAJren eskutik egingo du!

Gora Eusko Alderdi Jeltzalea!  
Gora Euskadi Askatuta!